

10

Oinarri likidagarria

- 10.1 Zer da oinarri likidagarria?
- 10.2 Oinarri likidagarri orokorra
 - 10.2.1 Zein murrizpen sartzen da oinarri likidagarri orokorrean?
 - 10.2.2 Oinarri likidagarri orokor negatiboen konpentsazioak
- 10.3 Aurrezpenaren oinarri likidagarria

10.1 Zer da oinarri likidagarria?

Legez jasotako murrizpenak zerga oinarriari aplikatuz lortzen den emaitza da oinarri likidagarria. Beraz, kenketa honen emaitza da:

Oinarri likidagarria = zerga oinarria – murrizpenak

Hortaz, murrizpenik ez badago, oinarri likidagarria eta zerga oinarria berdinak izango dira.

Oinarri likidagarriaren motak

Oinarri likidagarrian bi oinarri mota bereizten dira:

- Oinarri likidagarri orokorra
- Aurrezpenaren oinarri likidagarria

10.2 Oinarri likidagarri orokorra

10.2.1 Zein murrizpen sartzen da oinarri likidagarri orokorrean?

Ondoko hiru murrizpenak sartzen dira oinarri likidagarri orokorrean:

- Murrizpena pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenuak ordaintzeagatik.
- Murrizpena gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.
- Murrizpena baterako aitortpena egiteagatik.

ERNE: hiru murrizpen horiek zerga oinarri orokorretik kenduko dira. Aipatu diren hurrenkeran egingo dira murrizpenak. Murrizpen horiek egiteak ezin du ekarri oinarri likidagarri orokorra negatiboa izatea, ezta oinarri hori gehitzea ere.

10.2.1.1 Murrizpena pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenua ordaintzeagatik.

Zergadunak ordainketa hauen zenbatekoa kendu dezake zerga oinarri orokorretik, eta, kasu batzuetan, aurrezpenaren oinarritik:

- Ezkontidearen alde edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote lagunaren alde epailearen aginduz ordaindutako pentsio konpentsagarriak.
- **Epailearen aginduz ere urteko mantenurako ordaindutako zenbatekoak.** Hala ere, kanpoan gertatzen dira zergadunak seme-alabei ordaindutakoak.

Murrizketa hau ez da aplikatuko pentsio konpentsagarriak edo mantenurako ordainketak ordaintzen dituen horiek jasotzen dituenarekin bizi denean.

10.2.1.2 Murrizpena gizarte aurreikuspeneko sistemei, mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, mendekotasun aseguruari eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenen eta kontribuzioengatik.

Atal honen barruan, aurrezki eta aurreikuspena bildutako kopuruak muga eta baldintza jakin batzuetan murrizteko aukera ematen duten murrizpen batzuk jaso dira. Hona hemen murrizpenak:

GARRANTZITSUA: jarraian aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak eta kontribuzioak ezingo dira zerga oinarritik murriztu, bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek erretiro egoeran geratu ondorengo zergaldia behin hasita eginak badira.

ERRETIRO EGOERA

Erretiro egoera gertatuzat joko da bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguratuek dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean edo araubide horren ordezkioak diren entitateetan erretiroa hartu duenean. Ondorio horietarako, erretiro aurreratua, erretiro malgua, partziala eta, bere kasuan, onartzen diren beste formula baliokideak, erretirozat hartuko dira.

HALA ERE, baldin eta bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek erretiro partzialari heltzen badio, zilegi izango da erretiro osorako egindako ekarpenak eta kontribuzioak zerga oinarritik murriztea.

Aurreko apartatuan aipatutako erretiroari heltzerik ez dagoenean, erretiroaren kontingentzia gertatuko da gizarte aurreikuspeneko planaren estatutuetan ezarritako adinean, zeina ezin baita izan 60 urtetik beherakoa; eta estatutuetan erretiratzeko adinik zehaztu ez bada, orduan Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean ezarritako adinera iristean gertatuko da erretiroa.

Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean erretiratzeko ezarritako adinetik aurrera ezindurik dauden zergadunak erretiratuzat joko dira artikuluko honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

1. *Murrizpena gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin, aurreikuspen plan aseguratuekin, pentsio planekin, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planekin, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, eta mendekotasun aseguruarekin egindako aseguru kontratuengatik.*

a) Aseguru kontratuak gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin

Zergadunak gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru kontratuengatik ordaindu dituen kopuruak murriztu ahal izango dira, baldin eta zergaduna hauetako bat bada:

- a) Gizarte segurantzaren erregimenetako batean sartuta ez dagoen profesionala, bere ezkontidea, izatezko bikote-laguna, lehen mailako ahaide odolkideak, eta mutualitate horietako langileak, baldin eta kopuru hori murriztu ez badute jarduera profesionalaren etekin garbiak kalkulatzear.
- b) Gizarte Segurantzaren edozein erregimenetan sartuta dagoen banakako profesionala edo enpresaria, bere ezkontidea, izatezko bikote-laguna, lehen mailako ahaide odolkideak, eta mutualitate horietako langileak.

ERNE: aurreko bi kausetan, Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁷⁷ 8.6 artikuluan jasotako kontingentziak estali behar dituzte aseguru kontratuek.

- c) Besteren konturako langilea edo bazkide langilea. Kasu honetan, besteren konturako langileek edo bazkide langileek ordaindutako kopuruak murriztuko dira, barne sartuta haiei lan pertsonalaren etekin gisa egotzi zaizkien sustatzailearen kontribuzioak, baldin eta Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu ba-

⁷⁷ Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

teratuak⁷⁸ lehendabiziko xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera egiten badira eta aipatu langileentzako langabezi saria sartu bada.

Mutualisten eskubide kontsolidatuak bakarrik gauzatu ahal izango dira Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginak 8.8 artikuluan jasotzen dituen kasuetan.

b) Aurreikuspen plan aseguratua.

Aurreikuspen plan aseguratuetan ordaindutako primak murriztu ahal izango dira.

Aseguratutako aurreikuspen planak aseguru kontratuak dira berez, ondoko baldintzak bete behar dituztenak:

- Hartzailea, aseguratua eta onuraduna zergaduna izatea. Dena den, heriotza kasuan, prestazioak jasotzeko eskubidea sor dezake Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁷⁹ ezarritakoaren arabera.
- Bakarrik estaliko dira Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁸⁰ 8.6 artikuluan jasotako kontingentziak (erretiroa, lan ezintasuna, heriotza eta mendekotasuna), eta estaldura nagusia erretiroa izango da. Aseguru kontratu batek estaldura nagusia erretiroa izateko beharkizuna betetzen duela ulertuko da baldintza hau egiaztatzen denean: urte bakoitzaren amaieran lortutako erretiro eta mendekotasunerako hornikuntza matematikoaren balioa gutxienez izatea heriotza edo elbarritasun kapitalerako planaren hasieratik ordaindutako primen baturaren hirukoitza.
- Diru kopuruak aurrerapenez, osorik edo zati batean bakarrik erabil daitezke Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak⁸¹ 8.8 artikuluan jasotako kasuetan: gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia.
- Aseguru kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak 97. eta 99. artikuluetan xedatutakoa ez da kontratu hauetan aplikatuko. Aseguratzailerak ezin dio eman hartzaileari prestazio aseguratuen aurrerakinik, eta azken horrek ezin du poliza laga edo bahitu.
- Interes bermea eman behar du, eta teknika aktuarialak erabili behar ditu.
- Polizaren baldintzetan espresuki eta nabarmen utzi beharko da agerian aseguratutako aurreikuspen plan bat dela.
- Arauz ezarrita daude hornikuntza matematikoa beste aurreikuspen plan aseguratua batera aldatzeko beharkizunak eta baldintzak.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hori garatzeko arauetan erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen erregimena pentsio planen araudiari lotuta egongo da, salbu hornikuntza teknikoan alderdi finantzario eta aktuarialetan. Partikulariki, aurreikuspen plan aseguratua batean jasotako eskubideak ezin izango dira enbargatu, ez eta epailearen edo Administrazioaren trabarik jaso ere, harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatzean edo gutxienez hamar urteko antzinatasuna duten prima ordainduen egokitzeagatik haiek erabilgarriak izan arte.

78 Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

79 Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

80 Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

81 Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

Alderantziko hipoteka bat eratzearen ondorioz onuradunak lor ditzakeen aldizkako diru erabilpenak aurreikuspen plan aseguratua bat kontratatzea zuzendu daitezke, osorik edo zati batean, letra honetan apartatua jasotako modu eta baldintzetan. Aipatutako hipoteka abenduaren 7ko 41/2007 Legearen lehen xedapen gehigarriak arautu zuen (Lege horrek aldatetako sartu zituen hipoteken merkatua erregulatzen duen martxoaren 25eko 2/1981 Legean eta sistema hipotekario eta finantzarioari buruzko beste arau batzuetan, alderantziko hipotekak eta mendekotasun aseguru arautu zituen, eta zerga alorreko zenbait arau ezarri ere bai). Ondorio horietarako, hartzailearen biziraupen egoera erretiro kontingentziarekin parekatzen da, behin hamar urte igarota aurreikuspen plan aseguratua horren lehen prima ordaintzen denetik aurrera.

Aurreikuspen plan aseguruaren hornikuntza matematikoa ezin izango da mobilizatu gizarte aurreikuspeneko beste tresna batera eta, gainera, ezin izango dira plan hartara mobilizatu gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuetako eskubide kontsolidatuak edo hornikuntza matematikoak.

c) Pentsio planak eta Europako Parlamentuaren eta bertako Kontseiluaren 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planak.

- Pentsio planen partaideek egindako ekarpenak murriztu ahal izango dira, bai eta sustatzaileak egin eta partaideei lanaren etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak ere.

MUGA:

Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioei dagokienez (aurreko 1. apartatua aipatzen dira), halakoak egiten diren ekitaldi berean kapital moduan jasotako prestazioak jasotzen badira erretiroagatik edo estalitako kontingentziak baino beste arrazoi batzuegatik edo 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginak 8. artikuluko 8. apartatua aipatzen dituen egoerengatik baino beste arrazoi batzuegatik –8. apartatu horren bigarren paragrafoan jasotako kasua salbuetsita–, bada, orduan, murriztapenean muga izango dute ekitaldian egindako ekarpenek; hain zuzen, ekitaldiko zerga oinarrian benetan integratutako pertzepzioen zenbatekoa izango da muga hori.

- Partaideek eskubidea izango dute Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an onartutako pentsio fondoen jarduerari eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei egindako ekarpenak murrizteko, enpresa sustatzaileek egindako kontribuzioak barne, betiere beharkizun hauek betetzen badira:
 - a) Kontribuzioak prestazioa lotzen zaion partaideari egoztea zergen ondorioetarako.
 - b) Geroko prestazioa jasotzeko eskubidea atzera egiteko aukerarik gabe eskualdatzea partaideari.
 - c) Kontribuzio horri dagozkion baliabideen titularitatea partaideari eskualdatzea.
 - d) Estali behar diren kontingentziak azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzeakoak, 8.6 artikuluan jasotakoak izango dira.

d) Enpresen gizarte aurreikuspeneko planak

Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuari buruzkoak, lehen xedapen gehigarrian arautzen dituen enpresen gizarte aurreikuspeneko planei langileek egin dituzten ekar-

penak, hartzailearen kontribuzioak barne. Enpresen gizarte aurreikuspeneko planek baldintza hauek bete behar dituzte beti:

- a) Aseguru kontratu mota honi aplikatuko zaizkio bazterkeria ezaren printzipioa, kapitalizazio printzipioa, ekarpenen atzerazintasunaren printzipioa eta eskubideak esleitzeko printzipioa, horiek guztiak azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuari buruzkoak, 5. artikulua 1. zenbakian jasotzen dituenak.
- b) Polizan zehaztuta agertuko da zein prima ordaindu beharko duen hartzaileak gizarte aurreikuspeneko plana betetze aldera. Aseguratuei egotziko zaizkie primak.
- c) Polizaren baldintzetan espresuki eta nabarmen utzi beharko da agerian enpresaren gizarte aurreikuspeneko plana dela.
- d) Arauz ezarriko dira hornikuntza matematikoa enpresaren beste gizarte aurreikuspeneko plan batera aldatzeko beharkizunak eta baldintzak.
- e) Gainera, enpresen gizarte aurreikuspeneko planek baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Estali behar diren kontingentziak Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁸² 8.6 artikuluan jasotakoak izango dira bakarrik (erretiroa, lanerako ezintasuna, heriotza eta mendekotasuna), eta erretiroa estaliko dute nagusiki. Ulertuko da aseguru kontratu batek estaldura nagusia erretiroa dela baldintza hau egiaztatzen denean: urte bakoitzaren amaieran lortutako erretiro eta mendekotasunerako hornikuntza matematikoaren balioa gutxienez izatea heriotza edo elbarritasun kapitalerako planaren hasieratik ordaindutako primen baturaren hirukoitza.
 - Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁸³ 8.8 artikuluan aipatzen dituen kasuetan baino ez da baimenduko diru kopuruak aurrerapenez erabiliteza, dela osorik dela zati batean (gaixotasun larria dagoenean edo iraupen luzeko langabezia denean).
 - Kontratu hauetan ez da aplikatuko aseguru kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak 97. eta 99. artikuluan xedatutakoa. Aseguratzailerak ezin dio eman hartzaileari prestazio aseguruaren aurrerakinik, eta azken horrek ezin du poliza laga edo bahitu.
 - Interes bat bermatu behar dute, eta teknika aktuarialak erabili.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauan eta berau garatzeko arauetan berariaz erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen araubidea pentsio planen araudiari lotuta egongo da, salbu hornikuntza teknikoan alderdi finantzario eta aktuarietan. Partikularki, enpresen gizarte aurreikuspeneko plan batean jasotako eskubideak ezin izango dira bahitu, ez eta epailearen edo Administrazioaren trazarik jaso ere, harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatu arte.

e) Mendekotasun aseguruak

Bakarrik mendekotasun ertain edo handirako arriskua estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak, Autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legeak jasotakoaren arabera.

82 Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

83 Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

Era berean, zergadunarekin ahaidetasun harreman bat duten pertsonak, zuzeneko edo zeharkakoa izan, hirugarren mailaraino, hori barne, eta haren ezkontideak, izatezko bikote-lagunak, edo zergaduna tutoretzapean edo harrera erregimenean beren kargura duten pertsonak, eskubidea izango dute aseguru pribatu horiei ordaindutako primak beren zerga oinarri orokorretik murrizteko, ondorengo hirugarren puntuan aipatzen den murrizpen muga kontuan hartuta.

Zergadun berberaren alde primak ordaintzen dituzten pertsonak (zergadunarenak barne) guztira egindako murrizpenak ezin dira izan urtean 5.000,00 eurokoak baino handiagoak.

Horretarako, zergadun berberaren alde prima bat baino gehiago ordaindu denean, zergadunak berak ordaindutako primak murriztu behar dira eta, bakarrik 5.000,00 euroko mugara iristen ez badira, beste pertsona batzuek haren alde ordaindutako primak murriztu daitezke horien zerga oinarri orokorrean. Azken kasu horretan, proportzionalki egingo da murrizpena.

Prima horiek ez daude lotuta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari.

Aseguru kontratuak baldintza hauek bete behar ditu beti:

- Hartzailea, aseguratu eta onuraduna izatea zergaduna. Dena den, heriotza kasuan, prestazioak jasotzeko eskubidea eman dezake, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁸⁴ xedatutakoaren arabera.
- Interes bat bermatu behar dute, eta teknika aktuarialak erabili.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauan eta berau garatzeko arauetan berariaz erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen araubidea pentsio planen araudiari lotuta egongo da, salbu hornikuntza teknikoan alderdi finantzario eta aktuarietan. Partikularki, mendekotasun aseguru batean jasotako eskubideak ezin izango dira bahitu, ez eta epailearen edo Administrazioaren trazarik jaso ere, harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia gertatu arte.

f) Urteko gehieneko ekarpen finantzarioak gizarte aurreikuspeneko mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendekotasun aseguruak

Atal honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemei **urtean** egindako ekarpenak, zerga oinarria murrizteko eskubidea eman dezaketenak, gehienez **10.000,00 eurokoak** dira guztira, sustatzaileek egotzitako kopuruak barne (sistema horiek dira gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen plan aseguruak, pentsio planak, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak eta mendekotasun aseguruak). Hala ere, zergadunak **50 urtetik gorakoak** direnean, **12.500,00 eurokoa** izango da muga hori⁸⁵.

Dena den, ekarpenari ezartzen zaion gehieneko zenbateko horrek zerga oinarriaren murrizpenaren muga fiskala errespetatu behar du hurrengo 3.a) puntuan aipatzen den bezala.

g) Eskubide kontsolidatuak eta prestazioak

Mutualisten eskubide kontsolidatuak bakarrik gauzatu ahal izango dira Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak 8.8 artikuluan pentsio planei dagokienez jasotako kasuetan⁸⁶, hau da, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larria dagoenean.

84 Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

85 Azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hamaseigarren xedapen gehigarria.

86 Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

Atal honetan jasotako gizarte aurreikuspeneko sistemetatik jasotako **prestazioak** (gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen plan aseguruak, pentsio planak, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak eta mendekotasun aseguruak) osorik zergapetuko dira, eta inoiz ere ezin izango zaie gutxitu aurrez murriztu ezin izan diren ekarpen eta kontribuzioen soberakina.

Zergadunak osorik edo zati batean erabiltzen baditu 1. puntu honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemetatik eratorritako eskubide kontsolidatuak eta eskubide ekonomikoak pentsio plan edo fondoan araudian jasota ez dauden kasuetan, borondatezko edo nahitaezko baja kasuetan edo entitatearen desegite edo likidazio kasuetan, behartuta egongo da behar ez bezala egindako murrizketak zerga oinarri orokorrean berrezartzera bidezko diren autolikidazio osagarriak eginez eta berandutza interesak sartuz (sistema horiek dira gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen plan aseguruak, pentsio planak, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak eta mendekotasun aseguruak). Ekarpeneren zenbatekoa gaudituta jaso diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatuak dute horiek jasotzen diren zergaldian.

Gizarte aurreikuspeneko sistemetan kontsolidatutako eskubi-deak aurrerapenez erabiltzeagatik zerga oinarrian oker egin diren murrizpenak berrezartzeko, autolikidazio osagarriak aurkeztuko dira. Horiek aurkezteko epea eskubide horiek aurrerapenez erabili diren egunean hasi eta erabilpen aurreratua egin den zergaldiko autolikidazioa egiteko azken egunean amaituko da.

2. Murrizpena borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei emandako kopuruengatik

Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkideek egindako ekarpenak murriztu ahal izango dira, betiere Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen erregimen fiskalari buruzko otsailaren 23ko 5/2012 legeak, Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeena, 24.1 artikuluan jasotzen dituen gorabeherak nahiz bazkide langileen langabezia estaltzeko direnean, bai eta bazkide babesleek egin eta entitateetako bazkideei lanaren etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak ere.

GARRANTZITSUA: jarraian aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak eta kontribuzioak ezingo dira zerga oinarritik murriztu, bazkide, partaide, mutualista edo aseguruak erretiro egoeran geratu ondorengo zergaldia behin hasita eginak badira.

ERRETIRO EGOERA

Erretiro egoera gertatutaz joko da bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguruak dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean edo araubide horren ordezkioak diren entitateetan erretiroa hartu duenean. Ondorio horietarako, erretiro aurreratua, erretiro malgua, partziala eta, bere kasuan, onartzen diren beste formula baliokideak, erretiroztat hartuko dira.

HALA ERE, baldin eta bazkide, partaide, mutualista edo aseguruak erretiro partzialari heltzen badio, zilegi izango da erretiro osorako egindako ekarpenak eta kontribuzioak zerga oinarritik murriztea.

Aurreko apartatuan aipatutako erretiroari heltzerik ez dagoenean, erretiroaren kontingentzia gertatuko da gizarte aurreikuspeneko planaren estatutuetan ezarritako adinean, zeina ezin baita izan 60 urtetik beherakoa; eta estatutuetan erretiratzeko adinik zehaztu ez bada, orduan Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean ezarritako adinera iristean gertatuko da erretiroa.

Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean erretiratzeko ezarritako adinetik aurrera ezindurik dauden zergadunak erretiratutaz joko dira artikuluan honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

Gizarte aurreikuspen sistema honetatik jasotako prestazioak beren osoan zergapetuko dira, eta murrizpenik izan ez duten gehiegizko ekarpen eta kontribuzioen zenbatekoak ezingo zaizkie inoiz gutxitu.

Zergadunak osorik edo zati batean erabiltzen baditu borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik eratorritako eskubide ekonomikoak borondatezko edo nahitaezko baja kasuetan edo entitatearen desegite edo likidazio kasuetan, behartuta egongo da behar ez bezala egindako murrizketak zerga oinarri orokorrean berrezartzera bidezko diren autolikidazio osagarriak eginez eta berandutza interesak sartuz. Ekarpeneren zenbatekoa gaudituta jaso diren kopuruek, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatuak dute horiek jasotzen diren zergaldian.

Gizarte aurreikuspeneko entitateetatik eratorritako eskubi-deak aurrerapenez erabiltzeagatik zerga oinarrian oker egin diren murrizpenak berrezartzeko, autolikidazio osagarriak aurkeztuko dira. Horiek aurkezteko epea eskubide horiek aurrerapenez erabili diren egunean hasi eta erabilpen aurreratua egin den zergaldiko autolikidazioa egiteko azken egunean amaituko da.

MUGA:

Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioei dagokienez, halakoak egiten diren ekitaldi berean kapital moduan jasotako prestazioak jasotzen badira erretiroagatik edo estalitako kontingentziak ez diren beste arrazoi batzuegatik edo Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginak 8.8 artikuluan aipatzen dituen egoerak ez beste batzuk gertatzeagatik, orduan, murrizpenean muga izango dute ekitaldian egindako ekarpenek; hain zuzen, ekitaldiko zerga oinarrian benetan integratutako pertzepzioen zenbatekoa izango da muga hori. Enpleguko pentsio planei ez zaie aplikatzen muga hau.

3. Zenbaterainoko murrizpenak aplika daitezke mutualitateei, aurreikuspen plan aseguruak, pentsio planei, 2003/41/EB Zuzentarauan araututako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, mendekotasun aseguruak, eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei ekarpenak egiteagatik?

Berariazko araudian jasotako muga finantzarioak eragotzi gabe, muga hauek izango dituzte gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpen eta kontribuzioengatik egiten diren murrizpenek:

a) 5.000 euro urtean, EKARPEN HAUEK batuta: bazkide, partaide, mutualista eta aseguruak aurretik aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpenen baturarako.

Mendetasun aseguru pribatuei hirugarren pertsonen alde ordaintutako primak muga horren barruan konputatuko dira.

b) 8.000 euro urtean, EKARPEN eta KONTRIBUZIO HAUEK batuta: enpleguko pentsio planen sustatzaileek, edo enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa edo enpresaren gizarte aurreikuspeneko planetan hartzaile gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek edo mendetasuneko aseguru kolektiboek bazkide, partaide, aseguruak edo mutualisten alde egin eta haiei egotzitako kontribuzio enpresariaren baturarako.

c) 12.000 euro urtean, EKARPEN eta KONTRIBUZIO HAUEK batuta: ezarritako mugak errespetatuta, mutualitatei, aurreikuspen plan aseguruak, pentsio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei, mendetasun aseguruak, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindakoei.

ERNE: Zergaldian ekarpenak eta kontribuzioak egin badira, aurrenik kontribuzioak murriztuko dira eta, gero, ekarpenak, hala badagokio.

Murrizpen mugak aplikatzeari begira, jardueraren titularrak (banakako enpresariak) egindako ekarpen propioak kontribuzio gisa tratatuko dira honako hauek direnean:⁸⁷

- a) Enpleguko pentsio planei eta 2003/41CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei egindakoak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindakoak, eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planei egindakoak, baldin eta jardueraren titularra, aldi berean, babeslea eta partaide edo mutualista, edo hartzailea eta aseguratua bada.
- b) BGAEei –enplegu arlokoei eta lehenasuneko– egindakoak, baldin eta jardueraren titularra, aldi berean, bazkide babeslea eta onuraduna bada.

SOBERAKINAK

- Zer gertatzen da ekarpenak mugak gainditzen baditu?

Bi motatako soberakinak izango dira:

- 1.- MURRIZPENAREN GEHIENEN MUGAK GAINDITZEAGATIK GERTATUTAKO SOBERAKINA: **BGAEei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendetasun aseguruiei** egin dizkieten partaide, mutualista edo aseguratuek hurrengo bost ekitaldian murriztu ditzakete zerga oinarri orokorrean murriztu gabe geratutako kopuruak, baldin eta horiek murrizten diren ekitaldian ZERGADUNAK ERRETIRATUTA EZ BALDIN BADAUDE.

Berdin jokatuko da, baldintza berdinak beteta, murrizpenaren gehieneko mugak KONTRIBUZIOETAN gainditzen direnean.

- 2.- ZERGA OINARRIA NAHIKOA EZ IZATEAGATIK GERTATUTAKO SOBERAKINA: **BGAEei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta mendetasun aseguruiei** e egindako ekarpen edo kontribuzioak ezin izan badira zerga oinarri orokorrean murriztu oinarri hori nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldian murriztu ahal izango dira, BETIERE BALDIN ETA, SOBERAKINAK MURRIZTEN DIREN EKITALDIAN ZERGADUNA ERRETIRATUTA EZ BADAGO.

ERNE: Murrizpen horiek gorago adierazitako muga barruan egongo dira. Eta ekitaldiko ekarpen edo kontribuzioekin batera aurreko urteetako soberakinak ageri badira, aurrenik soberakinak murriztuko dira.

Pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenuak zerga oinarri orokorretik murriztuta emaitza positiboa ateratzen den lehen ekitaldian murriztuko dira soberakinak, hurrengo bost ekitaldien barruan. Ondorio horietarako, soberakinak antzinasunaren arabera murriztuko dira, hau da, zaharrenak murriztuko dira lehenik. Zergaldiko ekarpenak eta kontribuzioak azken tokian murriztuko dira.

Hurrenkera kronologiko horretan, murrizpen horretan kontribuzioen soberakinak lehenasuna izango du ekarpenen soberakinaren gainetik.

87 Urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartua.

Erregela horiek ez zaizkie aplikatuko produktu bakoitzaren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpen eta kontribuzioei.

4. Murrizpena pertsona desgaituaren alde egindako ekarpenengatik

a) **Pertsona desgaituaren alde egindako ekarpenen murrizpen horiek** egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- Pertsona desgaituak %65eko edo hortik gorako minusbaliotasun fisiko edo zentzumenezkoa izan behar du, %33eko minusbaliotasun psikikoa edo handiagoa eduki, edota judizialki aitortutako ezgaitasun bat izan Kode Zibilean jasotako kausak direla medio, maila edozein dela ere.
- Pertsona desgaituaren aldeko ekarpena egiten duenak zuzeneko edo zeharkako ahaide bat izan behar du, hiru-garren mailaraino, hori barne, edo, bestela, ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izateko bikote-laguna, edota tutoretzapean edo harreraren erregimenean beren kargupean hartu dutenak.
- Onuradun bakarra pertsona desgaitua izango da, modu ezeztazinean eta edozein kontingentzian. Dena den, pertsona desgaituaren heriotzak eskubidea sor dezake alarguntasun edo zurtasun prestazioak jasotzeko, haren alde ekarpenak egin dituztenentzat, ekarpen horien proportzioan.

Egindako ekarpenak ezin izan badira murriztu kuota nahikoa ez izateagatik edo pertsona desgaituaren alde urtean egindako ekarpenetarako ezarritako gehieneko mugak gainditzeagatik, ondorengo bost ekitaldian murriztu ahal izango dira.

Erregela hori ez zaie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpenei.

Puntu honetan aipatzen diren ekarpenak ez daude lotuta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari.

Prestazioak jasotzen badira edo eskubide kontsolidatu edo ekonomikoak modu aurreratuan erabiltzen badira pertsona desgaituaren alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistemen araudian jasota ez dauden kasuetan, borondatezko edo ezinbesteko baja kasuetan, edota entitatearen desegite eta likidazio kasuetan, zergadunak berrezarri egin beharko ditu zerga oinarri orokorrean oker egin dituen murrizpenak, autolikidazio osagarriak eginez eta berandutza interesak sartuz. Ekarpeneen zenbatekoa gaindituta jaso diren kopuruak, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatuko dute horiek jasotzen diren zergaldian.

Esan bezala, gizarte aurreikuspeneko sistemetan kontsolidatutako eskubideak aurrerapenez erabiltzeagatik zerga oinarrian oker egin diren murrizpenak berrezartzeko, autolikidazio osagarriak aurkeztu behar dira, eta horiek aurkezteko epea eskubide horiek aurrerapenez erabili diren egunean hasi eta erabilpen aurreratua egin den zergaldiko autolikidazioa egiteko azken egunean amaituko da.

b) **Zenbaterainoko murrizpenak egin daitezke pertsona desgaituaren alde egindako ekarpenengatik?**

Bi muga berezi ezarri dira aurreko apartatuetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko entitateei egiten zaizkien ekarpenetarako, pertsona desgaituaren alde egindakoak direnean.

Muga berezi horiek bi kasu hauetan aplikatzen dira:

- Ekarpene pertsona desgaituak berak egiten badu, zerga oinarri orokorrean murrizpena egiteko gehieneko muga 24.250,00 eurokoa da.

- Ekarpena beste pertsona batek egiten badu, pertsona horiek desgaituaren alde egindako ekarpenengatik gehiezin egin daitezkeen murrizpena 8.000,00 eurokoa da. Ezinbestekoa da pertsona desgaituarekin ahaidetasun harreman bat izatea edo tutoretzapean hartuta edukitzea. Halere, murrizpen hori ez dago lotuta pertsona horrek izaera orokorrean, eta adierazitako mugen barruan, gizarte aurreikuspeneko sistemetan egin dezakeenarekin.
- Desgaitu berberaren alde ekarpenak egiten dituzten guztien murrizketen zenbatekoa —desgaituak berak egindakoak ere zenbatuta— ezin da izan urtean 24.250 euro baino handiagoa.

Zer ekarpenengatik egin daiteke murrizpena, pertsona desgaituak berak egindakoak eta beste pertsona batek desgaituaren alde egindakoak batera agertzen direnean?

Lehendabizi, pertsona desgaituak berak egindako ekarpenak murriztuko dira. Eta pertsona desgaituarenak 24.250,00 euroko muga horretara iristen ez direnean bakarrik murriztuko dira beste pertsona batzuek desgaituaren alde egindako ekarpenak, aipatu mugara iritsi arte. Muga horretara iristen ez badira beste pertsona batzuek ere murrizpena egin ahal izango dute, proportzionalki, bakoitzaren zerga oinarri orokorrean.

Zer gertatzen da desgaituen alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistemari soberan egindako ekarpenak 2019ko urtarrilaren 1ean murriztu gabe badaude?

Soberako ekarpenak 2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietatik baldin badatoz eta 2019ko urtarrilaren 1ean murriztu gabe badaude, ezarritako mugak errespetatuz murriztu ahal izango dira.

5. Murrizpena kapitulu honetan aztertutako gizarte aurreikuspeneko sistemari egindako ekarpenengatik, bazkidea, partaidea, mutualista edo titularra ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-laguna denean.

Zergadunaren ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak – maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturak— zerga oinarriaren zati orokorrean sartu beharreko errentarik lortu ez duenean edo, lortuta ere, haien urteko kopurua 8.000,00 eurotik beherakoa denean, eta, betiere, erretiratuta ez baldin badago, zergadunak, aurreko mugen barruan egindako murrizpenez gain, posible du zerga oinarri orokorrean murriztea kapitulu honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemari egindako ekarpenak, baldin eta ezkontidea edo izatezko bikote-laguna haien bazkide, partaide, mutualista edo titularra bada. Urteko muga 2.400,00 euro da.

Erretiro egoera gertatutaz joko da bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguratuak dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean edo araubide horren ordezkoak diren entitateetan erretiroa hartu duenean. Ondorio horietarako, erretiro aurreratua, erretiro malgua, partziala eta, bere kasuan, onartzen diren beste formula baliokideak, erretirozkat hartuko dira.

HALA ERE, baldin eta bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuak erretiro partzialari heldzen badio, zilegi izango da erretiro osorako egindako ekarpenak eta kontribuzioak zerga oinarritik murriztea.

Aurreko apartatuan aipatutako erretiroari helderik ez dagoenean, erretiroaren kontingentzia gertatuko da gizarte aurreikuspeneko planaren estatutuetan ezarritako adinean, zeina ezin baita izan 60 urtetik beherakoa; eta estatutuetan erretiratzeko adinik zehaztu ez bada, orduan Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean ezarritako adinera iristean gertatuko da erretiroa.

Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean erretiratzeko ezarritako adinetik aurrera ezindurik dauden zergadunak erretiratutaz joko dira artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako

Ekarpen horiek ez daude lotuta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari.

Zer gertatzen da ekarpenak muga gainditzen badu?

Zergadunek ekarpenak egin badizkiete kapitulu honetan aztertutako gizarte aurreikuspeneko sistemari, eta ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-laguna hango bazkide, partaide, mutualista edo titularra bada, ondorengo bost ekitaldietan murriztu ditzakete zerga oinarria nahikoa ez izateagatik edo muga gainditzeagatik oinarri horretan murriztu ezin izan dituzten kopuruak.

2.400 euroko mugatik gorako soberakinak hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira, betiere baldin eta horiek murrizten diren ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo titular den ezkontideak edo izatezko bikote-laguna erretiratuta ez badago.

Ekarpenak ezin izan badira zerga oinarri orokorrean murriztu hura nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira ezkontidearen edo izatezko bikote-laguna erretiratuta ez badago.

Murrizpen horiek gorago adierazitako mugen barruan egongo dira (2.400 euro).

Ekitaldian egindako ekarpenak eta aurreko zergaldietako gaindikinen egozpenak aldi berean gertatzen direnean, ulertuko da aurreko urteetako ekarpenak murriztu direla lehenik.

ERNE: zer gertatzen da ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren alde soberazko ekarpenak egin badira eta 2019ko urtarrilaren 1ean murriztu gabe badaude?

Gizarte aurreikuspeneko sistemari zergadunak egindako soberako ekarpenak 2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietatik badatoz eta 2019ko urtarrilaren 1ean murriztu gabe badaude, gehienez 2.400 euro murriztu daitezke urtean, betiere haien bazkide, partaide, mutualista edo titularra ezkontidea edo izatezko bikote-laguna bada. EZ DA APLIKATUKO ERRETIROAREN MUGA.

6. Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitatei egindako ekarpenen murrizpena.

- Kirolari profesionaltzat hartzen dira ekainaren 26ko 1006/1985 Errege Dekretuaren aplikazio eremuan sartutakoak. Dekretu horren bidez kirolari profesionalen lan harreman berezia arautzen da. Goi mailako kirolaritzat hartzen dira irailaren 19ko 1467/1997 Errege Dekretuaren aplikazio eremuan sartutakoak. Dekretu horretan goi mailako kirolarien erregulazioa jasotzen da.
- Apartatu honetan ezarritako zerga araubidea aplikatzeko, nahitaez bete behar dira azaroaren 28ko 35/2006 Legeak hamaikagarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen beharkizun, ezaugarri eta baldintzak. Lege horrek pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen du, eta zati batean aldatzen ditu sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak.

Ekarpenak, zuzenekoak edo egotziak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarri orokorrean murriztu daitezke, muga honekin: etekin osoa gastu kengarrien zenbatekoaz murriztuta gelditzen diren lan etekinak gehi ekitaldian jarduera ekonomikoetatik banaka lortutako etekin garbieraren zenbatekoa, 24.250 euroraino gehienez ere.

Zerga oinarri rokorra behar bestekoa ez izateagatik, edo aurreko apartatuan ezarritako gehienezko muga gainditzeagatik, hau da 24.250 eurokoa, oinarri horretan murriztu ezin izan diren ekarpenak hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira. Gehienezko muga gainditzen duten ekarpenei ez zaie arau hori ezarriko.

Mutualisten eskubide kontsolidatuak Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bateginak 8.8 artikuluan aipatzen dituen kasuetan bakarrik gauzatu daitezke, edo bestela, behin urtebete igaro ondoren kirolari profesionalen lan jarduna amaitu edo goi mailako kirolarien izaera galtzen denetik aurrera. Eskubide kontsolidatu horiek bestelako kasuetan erabiltzen badira dela osorik dela zati batean, zergadunak zerga oinarrian behar ez bezala egindako murrizpenak gehitu beharko ditu, eta horretarako bidezko aitorten-likidazio osagarriak egingo ditu berandutza interesak sartuta. Jasotzen diren zenbatekoak egindako ekarpenak baino handiagoak badira, sustatzaileak egozitako kontribuzioak barne, lan etekin gisa tributatuako dute horiek jasotzen diren zergaldian.

Jasotako prestazioak, eta, halakorik bada, eskubide kontsolidatuak lan etekin gisa zergapetuko dira oso-osorik.

Kirolari profesionalek eta goi mailakoek aukera izango dute kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egiten jarraitzeko, kirolari gisa egiten zuten lan jarduna amaitu arren edo izaera hori dagoeneko galdu arren. Ekarpene horientatik murrizpenak egin ahal izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri orokorrean, Pentsio Planak eta Funtsekin arautzen dituen Legearen testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 8.6 artikuluan jasotzen dituen egoerak estaltzea helburu duen zatian.

10.2.1.3. Murrizpena baterako aitortpena egiteagatik

Hona hemen murrizpena baterako aitortpena egiteagatik, familia unitate motaren arabera:

- Bereizi gabeko ezkontideek eta maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikoteko kideek nahiz ondoko hauek osatutako familia unitatea: adingabeko seme-alabek, gurasoekin bizi badira, edota judizialki ezgaitutako seme-alaba adindunek, luzatu edo birgaitutako gurasoen agintepean daudenean. Baterako aitortpena egiteagatik, **4.347,00 euroko** murrizpena egin daiteke.
- Guraso batek eta aurreko atalean aipatutako seme-alaba guztiek osatutako familia unitatea, kontuan hartu gabe elkarrekin bizi ote diren legezko bereizketa dagoenean edo ezkontzarik edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikoterik ez dagoenean. Guz-tira, **3.776,00 euroko** murrizpena egin daiteke.

10.2.2 Oinarri likidagarri orokor negatiboen konpentsazioa

Oinarri likidagarri orokorra negatiboa bada, haren zenbatekoa aurreko lau urteetan lortzen diren oinarri likidagarri orokor positiboekin konpentsatu ahal izango da.

Kompentsazioa ondorengo lau urteetako bakoitzean egingo da urte bakoitzeko oinarri likidagarri orokorrak aukera ematen duen gehieneko zenbatekoan. Inoiz ere ezin izango da lau urteko epea luzatu ondorengo urteetako oinarri likidagarri orokor negatiboekin metatuz.

Zergadunak agiri bidez frogatu behar du nondik datozen eta zenbatekoak diren konpentsatu nahi dituen oinarri likidagarri orokor negatiboak, horiek sortu ziren ekitaldia edozein dela ere.

10.3 Aurrezpenaren oinarri likidagarria

Aurrezpenaren oinarri likidagarria lortzeko, aurrezpenaren zerga oinarriari pentsio konpentsagarriengatik eta urteko mantenerako ordainketengatik egindako murrizpenaren gerakina kendu behar zaio, halakorik badago. Oinarria ezin da, kenketa horregatik, negatiboa izan.

